Irakurri



Pantxo ehunzangoak hanka
bat aldrebes dauka. Pantxok
aurrera joan nahi duenean,
hankatxoak atzerantz egiten
dio.
Jon Olarra hurbildu da eta
laztan egin dio zetazko buztanaz.
-Tira, ehunzangoa. Igo nire lepora, neuk zainduko
zaitut.
Pantxok gogor heldu dio muturreko ileetatik. Gorputza
luze-luze egin eta gora egin du.
Elkarrekin joan dira Jaxinta urtxintxaren etxera.
Gaur Jaxintaren urtebetetzea da eta jaia antolatu du.
Marrubi tarta dago, eta gaztain zukua.
Txa, txa, txa dantzatuko dute. Pauso bat aurrera, pauso
bat atzera.

**Hartu hizki larri guztiak dituzten hitzak eta hona ekarri:**

______________ ______________ ______________

______________ ______________ ______________

______________ ______________ ______________

______________ ______________ ______________

______________ ______________ ______________

**Bilatu testuan hitzak eta falta diren hizkiak jarri**

_on, _hunzangoa, _antxo, _aztaina,
_rtxintxa, _axinta, _anka, _epoa,
_arta, _ukua, _larra, _rtebetetzea.

LIVEWORKSHEETS